


 BOOKTEGI

esnatze basa

MAITE AIZPURUA OLAIZOLA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

MAITE AIZPURUA OLAIZOLA

Esnatze basa

ARAITZ-LARRAUN-BETELU

*Ostadarraren ertzetan, lur azpirako sarrerak zabaltzen
omen dira eta bertan altxor miresgarriak aurkitu.
Badirudi, hiltzen garenean ostadarra igaro
eta bertara bidea egingo dugula.¹*

San Fermin egun baten igaroa Zuloan, eguzkitik eguzkira.

1 Juanjo Lasarte eta Luisa Aranbururen Ostadar eskulturari laguntzen dion idatzia,
Mendukilo Kobaren interpretazioaren atarian jarria dagoena. (Larraun, Astitz).

FERMIN 04:48

ZULOAREN GOIKALDEAN sumatu dute azken hatsa eta bailara asto eta zakurron kantaleku bihurtu da. Zaunka. Ulu. Arrantza. Gizakiek biharamunean ulertuko dute zertaz ari garen.

Dak! Harrapatu duk, mezua atzemanda. Ondo ari haiz, Fermin, oraindik ere baduk atarramenturik, igorri behar duk mezua, abisatu behar duk mundua, dagoenari erantzun beharra zagok, nekatzen hauen arren besteren loa zaintzeak, bizitza sumatzen jarraitzen duk, heriotza sumatzen jarraitzen duk!

Zerbaitetarako jaio gara mundura, bakoitzari berea, hori da etxabereon legea. Hi etxearen zaindaria izango haiz, Fermin, esan zidaten, horregatik otso manera hauek, horregatik koskabilorik gabeko zakur bizitza lasai eta kateatu hau taketari lotuta errepideari so. Ez nadin ihesi, izan nadin abere. Etxean gozo eta kanpoan otso. Zaunka. Ulu. Kosk. Laztandu dezakezue nire bizkarra, erantzun ezin ditudan galderak egin, izenez deitu, ai, zenbat gustatzen zaidan izenez deitzea, Fermin, Fermin, Fermin, baina zerbait atzematen badut akabo, ulu egingo dut azkenak eman arte.

Zabaldu begiak ikusi ez arren, tentetu belarriak ezer ez entzuteko, gora paparra, zakur halakoa, aharrausi eta bafada haiz denerako, fu, ufa, uuuu!

Mezua igorrita. Adarretik surtidoreraino, landetxeetatik porturaino. Halaxe egin duk hamahiru urtean, bejondeiala, Fermin.

Isiltasunak hartuko du zuloa, baina adi, sasiak ere baditu begiak eta ontzak ere belarriak, eta uretako zozoek dena kontatzen diote elkarri, dena.

AULKI JOKOA 06:38

1-1, BANA, berdinketa.

Dena ematen gabiltza mozkorren poderioz eta zeruaren alde bat argitzen ari da. Nire ezker ipurmasaila zure aldakaren pisuaren eta aulkiaren artean zanpatzen dela eta arnasestuka, adrenalina larri. Pelbisa biratzen dut atzera eta bularrarekin zure saihetsen azpian sartzen naiz, txo, ona zuan, esan dizut xuxurlan, eta zuk entzun eta kasu, entzun eta altxa. Obedientea ze haiz gero, gustatzen zaidak ba. Odolez puztuta gogoa aulkian jarri, lerdea darigu eta izerdiaz ohartzen naiz, azalaren irakinaz, goizaldeko freskurarekin ihintza sortzeko moduan nago ni, ufaka zu. Aulki jolaseko zirkulua jada ez da zirkulu, zulo beltz baten buelta gabiltzan bi basurde eder gara zentzumenak horrela banatuta:

zuk begi bat aulkian

nik bestea gerta daitekeenean

zuk entzumena jokora

ni zarraparrari tentu

zu erritualaren ohituraren bertakotasunaren altzoan

ni arrotzaren egon eta kabitu ezinaz maskaraz

zu ongi etorri Uxue aurpegiaz

ni zoriontasunez esker onez lehertzen, inoiz pentsatu guk horrela kalean jolasean ibiliko ginenik, besteren aurrean.

2 eta 1 nire alde. Eta hemen geratuko banintz hilabete batzuetarako sikiera? Eta baserria bizitzeko moduan jarriko banu? Errotu nahi eta ezin hau besteei ere gertatuko ote zaie? Irabazteak fantasia txuteak ematen dizkit eta egarria. Glakadaka irentsiko nuke kubamartini bat gehiago kolkotik behera.

Plaza begiratzen dut eta jokalekua ikusten dut. Plaza beti plaza, plaza da frontoia, dantzalekua, erakustaldien kantxa, eskarmentuaren terrenoa. Ligoteoaren frentea, pilota jokorako kanpo eta barru marra zuzenak dituen, ene bada, berriz ere barne soziologoa martxan dabilkit errealitatea

disekzionatzen, zein, nor, nola, zenbat dagoen eta ez dagoen. Falta dira dagoeneko kirolariak, aitatxo-amatxo-haurtxo hippy dantzazaleak eta zaharrenak. Hor daude ordea, inguratzen naute mozkorrek zalapartaka lehen lerroan, eta hankazpietako nekeak ezkutatzen beherapenen zain dauden hetero guztiak bigarreanean. Falta dira sudurrari ematera joan direnak soziedadera, eskerrak!

—Eman egurra! —oihukatzen dute.

Ahotsa ezaguna egin zait, mehatxu itxura dauka. Zer da egurra ematea? Zer esan nahi du? Nork nori?

—Ez zagok errukik! —konfirmatzen dute.

Nori ari diren ere ez dakit, toka-toka-toka ari dira eta, ez da entzuten, aupa Uxuerik edo benga neska, aupa gazte! buruzuri bat sikiera, herriko gazte bat naiz, he-rri-ko-a, horrek bada ere salbatu beharko ninduke.

Egurra ematearena, ez da animo inozentea, ez gaitezen engaina, errespetatzen zaituzte baina ez zaituzte nahi inguruan, Uxue, hori da egia gordina, neure baitako kantineka. Jokoa gelditu eta galdetuko nioke, ea zehazki nori ari den, baina ez du merezi gure arteko jolas honi horrelakorik egiterik. Beti gustatu izan zait lagunak egitea baina ja ez, dagoeneko ez da edonor nire laguna, nik kontrolatzen dut nire zirkulua. Borobila egitura gogorra da, bai, ihesaldirik gabekoa, infinituki gera zaitezke hor eta ez atera, zulo honetan bezala. Bada, erdian baldin banago, hobe defendatzen ikastea, bestela, tripaz gora geratzen den ardiaren moduan, putreak jaten dizkizu sabelak goi larreetan.

—Animo, Uxue! Zurea da jolasa!

Hortxe Maitane, beti eskuzabal, besteak mirestekoa prest. Eskua altxa eta konplizitate keinu batekin eskertu diot. Pena ordubetetik gora aspertu egiten garela elkarrekin, edo ni berarekin hobe esanda. Udara pasatzera itzultzen nintzen lehen aldietan gogorragoa izan zen sentsazioa. Jende ona dira, asko dibertitu zara haiekin, maite dituzu eta gustura zaude hemen, hau da zure lekua, hau da zure jendea, errepikatzen nion nire buruari, ez zara haiek baino interesanteagoa. Baina kosta egiten zait, egiten zaidanez. Aspertu egiten naiz, edo amorratu, haiek hitz eta pitz arruntaren bueltan eta niri aurpegia berdetzen, barne epaileari jaten ematen hausnarrean. Eta

hara, berak esan du frontoi ustel honetan lehen aldiz “Uxue” altuan, horrela, bat-batean, abisatu gabe. Gauza onak ere horrela datoz, ez txarrak bakarrik. Behin ere ez dena, behin da.

Azken tantoa etorriko da. Umetan iturburuan elkarri eskainitako zirriei egindako omenaldi intimoa da gaurkoa, eta badakigu, jolasa eta jokoa nahasita, elkarrenganako itzuleran. Ezker eskua jarri dut aulkiaren bizkarraldean, besoa-sorbalda-lepoa altxa eta barre ez, irribarre egin didazu, beti estimatu izan dut zure irribarrea, ez dira asko izaten paraje hauetan. Partida eta gero plaza erdian emango dugun besarkada da buruan dantzan dabilkidan irudia, irabazten utziko ez dizudan arren. Txerrien negarrak janak asetzen ditu eta egon beharko dira zain gure jolasean pornografia edo kalapita ikusi nahi duten horiek, badira mordoxka bat, badirenez.

Bisitan etortzen naizen bakoitzean pentsatzen dut edonork ez duela izan horrelako inguru eder batean hazteko zortea. Zortea diot, on edo txarrik gabe, edertasunez inguratuta jaio izanagatik bakarrik zortedunak garelako, itzultzeko lekuren bat dudalako. Baserriko sukaldean erditu ninduen amak, boteprontoan, bazkaldu zuen aulki berberean alderantziz eserita. Balentria ez dadin ahaztu, tronuak “U” itxuragabe bat darama giltzekin marraztua jarlekuan. Aitonaren izena eman zidatelako, behiak zaintzen zituen morroi sentibera hura, erretratu eta anekdoten bitartez ezagutu dudana. Haraxe itzultzen naiz ni bisitan natorrenean.

Goizaldeko ordu hauetan dagoeneko, Bixente, hilda egongo da, amaren hiru lehengusu mutilzaharren baserri zahartuan, zartatuan, baina ni nirera, aulki jolasera, edo jokora hobe esanda, nahikoa lan daukat inguratzen nauen zirkulua zaintzearekin.

NERE 09:08

KOTXETIK ATERA eta zakurrak hurbildu zaizkit egunon esatera. Usaintzen utzi diet, atera hurbildu, eskuak gerrian jarri eta oles, Bixenteeeeee!

Kopeta zimurtu, hasperen, eta, Bixenteeeeeeee! Oraingoan kantuka bezala, azentua bigarreanean.

Lepoa albotara jiratu, kopeta ilundu eta azkena, Bi-xen-te, esnezaleaaaa!

Lan honen alderik onena loturarena da. Etxe bat norbaitekin berreraiki edo haurrak edukitzea bezala, plan bat daukazu hurrengo urteetarako eta ez da gutxi. Nik ez dut haurrik, baina esnea partitzen dut hogeita sei etxetan, helduei titia ematen dien inude motorizatua naiz, todoterrenoan heldu eta zup! Hortxe lotura, errutinaren balioa, bizitzaren zantzua, zentzua. Zein ederra den bizitzari zentzua eman ahal izatea.

Hara... filosofatzen nabil goiz goizetik, benga lanera, besterentzako lanean ari zara eta. Behiak ez dira gureak. Zulora etorri nintzenean aziendarik ez baina gehiegi neukan: denbora luze, ilusioak denak batera eta lasaitasunaren hutsune aukeraz beteta. Dena egiteke eta berdez inguratuta ikusi nuen nire burua. Bizilagunak aldakako infekzioak jo eta erreleboa behar zuela esan zidanean aukera argia ikusi nuen hemengo bizitzari ekiteko. Berak gobernatzen du baserria semearekin, eta nik inude lanak egiten ditut besteren esnearekin. Udaberrian, etxeko bildotsak hil heinean ere gure ardien esnea konjelatuta ere partitzen dut mamia egiteko, Andonik jezten ditu ama kumegabeak eta kumeaz ahaztu egiten diren arren esnea botatzen jarraitzen dute. Abortua izaterakoan ere hala izaten da batzuetan. Nik kalostroa sortu nuen, gero esne berria eta esne zaharra eta ez nuen nori eman, lagunak bat animatu zen arren probatzera. Jendeak nori emateko izate horretan asko insistitzen du, zuloak irudikatu eta ondorengoekin betetzearen asmo horrekin, ze laster etorriko da ba txikiren bat? Etxea konponduta, orain zer, betetzera? Andoni ez da animatzen, hala? Uteroaren zuloa hutsik utziko duzu?

Hara... atzera begira nabil goiz-goizetik. Nahikoa lan daukat nik daudenak zaintzen etorriko liratekeenak eta etorriko ez direnetan pentsatzen goiza galtzeko. Bixente ez badago banoa. Txomin moxaletan izango da eta Joxe Mari, gizajoa, ea bueltatzerik baduen ospitaletik. Mutilzaharren bailara da hau, errepikatzen du jendeak hemen, etxe handi horietan haiek bakarrik, neskazaharrak bederen lagunekin elkartzen dira eta lan eta lan dabilta, dio jendeak,

horrela dabilta bai besteen bizitzak zaintzen, entretenituta, baina mutilzaharrak, gizajoak, batek daki nola bizi diren.

Atea bultzatzen dut, itxia dago, katea jarrita. Ea ba, leihora edo, sukaldeko panorama zer. Sukaldean gailetamaria hondarrak eta erdizka utzitako kafesnea dira bizitza zantzu bakarrak. 4x4ra biratu naiz, kapota goian eta agerian marmita bete oraindik. Nere, denboraz larri zabiltza! Ze estresagarria den landa bizitza. Ukuiluan akaso? Zabalik dago... hara! Norbait badabil. Gerturatu naiz, simaur hatza eta umeltasuna dario ukuiluko iluntasunari, kaka barrutik kanpora ateratzen da beti... Bixente? Bixente!

Jaio gabea dirudi, amantala soinean betirako loak hartuta, eskuak hanka hankartean, bits zuria ahoan eta simaurrean goxo etzanda alboz, Bixente, Bixente, Bixente, barrutik oihukatu dut, astinduko nuke baina korrika egingo dut, herri honetan landetxeak bakarrik daude eta isilik dago dena, 4x4a hartu eta telefonoz deitzea onena. Dardaraka hasten da lurra, nire hankak ote? Eta ikusten dut gertaera kamera geldoan, auto-zineman bezala, batzuetan bizitza kanpotik ikusten da. Marmita kotxetik erortzen, esnea airean iraultzen, esnea zementuzko errepidean nahasten lurra, kotxeen olioia eta zakarrarekin batera.

Esnea irauli da, bizitza irauli da, apurtu da katea, gaur ez da inor aterako atarira, ez naizelako joango. Bihar bai.

KONTXI 11:18

AURPEGIA ZABALDU eta bekainak altxatuta agurtu dut errepidera, aio Nere, bai, aio, eskuarekin gero, Felisaren partez, bai, aio, edukazio onaren izenean. Nik beti agurtzen dut, ezezagunak ere bai. Hemen lehen beti agurtzen zen jendea, hori horrela izan da, eta ohitura onak mantendu egin behar dira. Agurtzea, gaixoengatik galdetzea, bizilagunaren ordezeko giltzak izatea edota auzolanera joatea, atarira ateratzea lagunekin, nahiz eta beste zeregin batzuk izan edo belaunek min eman, egin egin behar da. Kitto.

Eguerdia da eta aulki banatan eserita gaude, ni atarikoan eta Felisa gurgildunean, galbanarako apropos, ez etzanda ez zutik. Valeria eta Claudia datoz, deskantsu ordua izango dute. Maria Luisarenean lan egiten du Valeriak. Felisari kontatzen diot, baxu, konfidentzian, horiek kontuak, hil egingo zela Luisa 80 urteren bueltan! Ja! Bi iktus eta hesteetan barizeak izanda gutxi geratzen zaio, GUTXI GERATZEN ZAIO, esan zien medikuak ilobei eta dak! Haiek baserrira etorri Iruñetik izeba neskazarren azkenak usaintzera, herentzia bizirik egonda zurrupatzeta, ideia kurioa, Felisa, gutxienez, behin irakurri ninan liburu bat Silvia delako batena, eta horixe bera zioen, masustak jasotzeari utzi eta urrea pilatzen hasi ginela, etorkizunean pentsatzen bizitzaren kontu hori, eta baita pilatu ere! Eskerrak Luisa ez zela ezkondu, baserria bera bakarrik gobernatzen geratu zela, berak pilatutako lana berarentzat gorde zuela, bederen, ze ederra dun atsoa, hor ziraun, atsoak onenak gaitun, Felisa, kalkulua gaizki egin zitenan nonbait, bizitza ezin dun beti aurreikusi, eta ilobak nazkatu eta Kanarietara oporretara joateko Valeria kontratatu dituen. Ederra marka.

Parez pare geratu zaizkigu bi señoitak. ¿Que tal estáis, Kontxi? galdezka, hura ere, edukazio onaren izenean, horrela bai. Ondo, nik. Pozten naiz, hark. Eta zu? Kontxi, ze galdera dun hori, atzokoa eta gero, gertatu zaiona eta gero, koitadua, ez hadi sartu hireak ez diren galtzetan, baina, kontxo, galtzak ere ez genituzke jantziko muturra sartu ez bagenu bere garaian, ni gonarekin gustura ibiltzen nintzen arren, neska motzetan ze esanik ez, mojen erresidentzian, hamahiru urte eta zeharo txolinduta, gonaren dobladilloari helduka eta elkarri kontuka izterrak estutzen genituen bitartean.

Valeria kexaka dabil, después del susto de ayer, Kontxi, Guardia Zibilak goialdean paseadan zebilela geratu, jestoy enturcada, Kontxi!, eta izena galdetu ziola, gero nongoa zen, de dónde

viene usted a esta hora, arratsaldeko 6rak izan arren eta gero pasaporte eskatu ziola erantzuteko aukerarik eman gabe eta orain pasaporterik ez eta paper bat daukala dioena zein den bere pasaportearen zenbakia. Les quitaría yo hasta el nombre a esos miserables, Kontxi, pa que sepan qué es ser nadie, bota du purrustan, gaur jaieguna dela, es fermín, baina etzi astelehenean Hiriko estranjeria bulegora joango dela Goikolako Nere galdetzera ea deportazio prozedurarik zabaldu dezaketen, sabe judas, Kontxi! Lurrera begiratu du, deskantsua ez dela deskantsu denontzat, que esto es un agujero, eta hori, ¡Calma, Kontxi, paciencia, que la vida es...!

Konponduko da, diosku Claudiak, alkateak nazionaletara deitu duela argitzeko eta bihar kontzejura joateko, zenbat gauza bihar, ale, bagoaz, eskutik heldu dio Claudiak Valeriari, presa daukagu. No sé yo, eztakit ba, Kontxi, hasperen Valeriak altuan, pero bueno, el hombre es bueno, haren ama zaintzen ibili nintzen garai batean eta kontratua egiten eta dena saiatu ziren, pena que esté casado, eta keinu bat egin dio Claudiari.

(Keinua)

Haiek bakarrik uler dezaketen keinu bat, hizkuntza propio bat darabilenaeen moduan, besteen aurrean erabiltzekoa dena, erakustekoa haiek bakarrik uler dezaketela, maitaleek edo ahizpek egiten duten moduan, edo euskaldunok oporretara joaten garenean euskaraz aritzen garen moduan inork ulertzen ez gaituenaren harrokeriarekin. Barrez lehertu dira gure aurrean, okurrentzia hutsarekin, edota kluxeak hortz artean jolas bihurtzeak ematen duen atseginagatik, ez dakit. Valeria biratu, eta laztanez betetako ipurdiko horietako bat eman dio Claudiari eta, arratsalde ona pasa, jovenzuelas! esan digute eta katakumeak jolasean bezala abiatu dira, atentziorik jarri gabe ANTONI DENDA pareko kotxeen sartu-irten festa gurutzatu dute, begira, Felisa, kalendarioan jai eguna izanagatik dendan badun sekulako mugimendua.

Nik etxeko atea sokarekin irekita uzten dut, ohitura denetatik onenak mantendu behar direlako.

Marisa pasatu da suzko zezenaren pare, ale, aio, pareja! dio Marisak azkar, geratzeko asmorik gabe eta errepidearen bestaldera gurutzatuz badaezpada. Ez da giro gaur! Eskuarekin keinu egiten diot, Felisaren partez ere agurtu dut. Izerdi-lamatan doa Marisa eguneroko paseoan. Aterpetxeen herrian bizi da, bizi dira, hobeto esanda, bera eta Virginia, eta puntualitate errusiarrez ibilbide berdina egiten du egunero. Landatik portua igaro, beterrri xendatik zeharkatu,

ibaiaren xenda hartu, iturri-zubian buelta eman eta errepidetik itzultzen ari da Felisa. Asteartetan Virginiak laguntzen dio, jarraika joaten zaio alboan justu-justu segituaz erritmoari, eta jendea batera agurtzen dute eta jendeak batera agurtzen ditu, eta niri inbidia edo nostalgia edo ez dakit zer bat sartzen zaidan hesteetan, eta hau ere niretzat gordetzen dut, ez diot kontatzen. Marisa Iruñetik itzuli zen eta Virginiak jarraitu egin zion, Madril handi samarra zela, bere onena eman zuela gaztetasunak eta biziaren abiadurak, Marisarekin zulora erretiratzea onena zela iritzita. Inoiz ikusitako bailara ederrena zela, ezin dela konparatu hemen zozoek nola kantatzen duten El Retirokoekin alderatua. Orduz geroztik, agur, pareja!, esaten diete baina ez guri Marisak esandako modu berdinean, agur, pareja esaten dieten supermerkatuan, okindegian, udaletxean paperak sinatzera joaterakoan ere bikoteagatik galde egiten diete. Bat gaixorik bada medikuak besteari azaltzen dio agian ELA izan daitekeela arrazoia eta suabe esateko, eta horrelakoak... hala ere ez zionagu guk inori gaixotasunik oparo, ezta Felisa?

TROGLOBIOAK (--:--)

OHARRA:

atal hau errieta/kasketa filosofiko bat izango da,
birao zerrenda bat azken finean.

EGUN BATEAN hona sartu ginen eta hemen geratu ginen. Inork ez daki zergatik eta ez du jakingo eta ez du inportaimmanenteak gara, egoten jakin badakigu, etorkizuna ez da eraikitzen lur azpian, etorkizuna, da. Orain 15 mila urte sartu ginenean —norbaiten arbasoen - +743 belaunaldi— arbasoak bizi ziren hemen. Sua, gorotzak, hartzaren larruak usteltzen, aluak paretetan margotuta. Gustatzen zaizuelako arrastoa uztea, hilotzak interpretatzea, atzera begiratzea eta espeziea historia gisa aldarrikatu eta marra kronologikoak egitea. Hutsuneetan zuloak eraikitzea: genealogiak, sinboloak, tresnak, liburuak, abestiak, jainkoak, balio sistemak, hiribilduak... identitatea. I-den-ti-ta-te-a, ja! Kontzeptu estetikoa zarete, eskola paleolitiko bat zarete hartzak, orkatzak, arteak, eskuak eskalan margotzen, hori zarete.

Ez denbora ez perspektibarik. Lur azpian ez dago denbora lerrorik, taupada geologiko batek mugiarazten du bizitza, pentsatua izateko zehatzegia, interpretatua izateko handiegia. Anatomia espezifiko batez ari gara: antenak, azkazalak, pertikak, azal gardena eta tripak bistara. Kanpora aterako garela pentsatzea kimera bat da, alferrik egingo duzuen ariketa. Gurutzatu genuen behin ostadarra. Iluntasunera ohitzen ez bazara, gauza asko galduko dituzu. Platon eta hori, ederra kontua zuena.

Denbora da arkitektoa eta hutsune guztiak konektatuta daude. Munduko kobazulo guztiak konektatuta daude. Arraro guztiak konektatuta gaude. Lur azpiko iraultza sorra da, arrarotasuna ez da baldintza bat, ez gara underground. Arrarotasuna da, aldatzen gara aldatu behar garelako. Ez itozeko. Korrontea datorrelako. Ez dago minaren goraipamenik, lepo mozketarik, justiziaren abanderaturik, erromantizismorako tarterik.

Guk, pasatzen ikusten zaituztegu, zuek eta zuen beldurrak. Lehen troglodidak zineten, gero artzainak, orain Tourretan zatozte, ilarak egiten dakiten gizartea zarete, nola antolatuko gara? galderaren atzetik. Kontzeptu estetikoa izaten jarraitzen duzue, orain margotzen dituzue: zakilak, maitaleen promesak, izen propioak, “indendentzia”, JAVI HIJO PUTA MARIKON. Argiarekin zatozte

barrura eta aukerak eman dizkiezue likenei, alga izan ahal duten likenak, ondoren goroldio izateko. Lur azpian transzenditu dezaketen bakarrak dira, gaitz berdearen aurrean ahulak, belardi, baso, ohian bihurtu daitezke. Koadro eder bateko paisaia bihurtu daitezke, ereserkietako protagonista edo turisten argazki. Gure artean: horri fotosintesia deitzen zaio. Edo klase traizioa? Edo garapen jasangarria? Badakigu nolakoak zareten, ez dago desertu berde baten monotonia baino gauza arriskutsuagorik irudimena martxan jartzeko, hasieran originalak imajinatzeko jada zegoena bazegoenean. Bakoitzak nahi duen hori ikusteko behar komenentziaz edo kontestuz. Baina hori, transzendentzia eta hori, zuen kontua da.

UX25 (16:38)

Og., 5, 13:52

ux25: kaixo

Gaur, 15:43

ux25: kaixo

Gaur, 18:04

urtzilamia: kaixo,

brkatu, mobila begiratu gabe

kriston resaka

zmz?

ux25: ni ere resakarekin

urtzilamia: a! atera zinen 6en?

ux25: Bai, baño herrian

hemen ere sanferminak die ta

herrin geldittu naiz bixitan nator

ta beti hemen, txikitatik

jjjj nostalgiaa

urtzilamia: ia, bueno, nik nahiago herritik kanpo

ux25: ematen du bakarrak gala tinderren ez? heteroak aparte noski

urtzilamia: bfff asako maromo daude ez-binario bezala, fijatu zare?

ux25: ya, ya les vale

nik uste nuen ez zela iñor agertuko ia hemendik

desertu bat da zuloa...

urtzilamia: desertu berde bat

skshksfffhgtzkh

ux25: mendira datozenak ta agertzen zaizkit, eskalatzaileak

urtzilamia: argazkiko lekua hemen da?

ux25: bai

urtzilamia: K guapo, oso politta tia

ux25: bertan nago oraintxe

urtzilamia: urjauzian?

ux25: bueno, iturburu bat da

jjj igoal bertan aurkituko zattut, "lamia"

urtzilamia: ia, igoal, jj

ux25: esk gustatzen zait porai juatea biluzik ta bañatzea lasai
presa gipuzkoarrez petatzen da udaran, gehiei...
txoko sekretu denak dakizkit
animatzen baza

urtzilamia:

ux25: ???

ux25: mitologia gustatzen zaizu?

iznagatik diot

Urtzi zerua edo horrelako zeozer da, ez?

Ba badakizu hemen badagola adarbakar baten istorioa?

Flipas,

nik uste nuen euskalerrian etzegola

horrelakorik...

bueno animatzen baza edo abixatu

nire izena uxue da

portzierto

esango diazu...

mx

ATARIA (18:58)

BETERRIKO MIRADOREA deitzen diot nik izkina honi, plaza eta ANTONI DENDAREN artean dago ataria, eta laster hasiko da ordurik interesgarriena. Herrian ibili zarela esateko hemendik pasatu behar da derrigor. Apaiza jaunartzean bezala, e, Felisa, geldirik geratuko gaitun gu hemen eta pasa daitezela denak gu agurtzera.

Karmele arrapalan dator, Nahia eskutik:

Ze pena Bixenterena, holakorik ere, animalia bezala ukuiluan akabatuta aurkitzea, eskerrak gauzak aldatzen ari diren, ze bestela, horrelako jendeak, asko sufritu du, e? Zure klasean bi lesbiana daude, ezta, Nahia? Maddi eta Maddi batera dabilta, eta hori 10 urte bakarrik dituztela, espabilatuak datoz gaur egun. Ale, bagoaz pistinara!

Joxe arrautza formako kotxe elektriko txikian, surtidorerantz:

Entierroa egongo den badakizue? Trepeta hau kargatzen jartzen ez badut ez naiz berehala iritsiko, diabetesarekin zirkulazioa hainbeste konplikatuko zitzaidanik ere, hurrengoia neu izango naiz!

Andoni bizikletan eta izerdi galdatan:

Hau da beru gaurku, eskerrak lainuei, bestela ez legoke berdeik, berton atrapaute gatzen dizela emoten dau... aber ekaitzek behingoz lehertzen daben.

Izkina honetatik behetik gora begiratu daiteke bakarrik baina ia dena eta denetarik ikusten da. Etxeko horman jartzeko moduko paisaia honetan Errekaundik zauri baten antzera zabaltzen du harria eta jende gehiena berdinean ibiltzen da hemen, errekari konpainia egiten dion errepidearen bazterretik. Begira, Felisa, mapa bat egingo dinat alderik alde, dena berde zagon, ikusten dun Felisa?

(mapa)

Katilu bat bezalakoa dun zuloa, begiraleku bat egin ditzen hemen eta pista berriak goiko larrerako, Adarraren magaleraino irits gaitezken kuartroporkuartroan, hurrengo San Isidrotan. Horrelakoa dun goitik behera, Felisa:

(mapa)

Hauek guztiak zauden, Felisa,

ikusten ditun?

Urdinak baino urdinduta ditu irisak Felisak. Zer ikusi ote duten Felisaren begiek. Pagoak 100 urte behar baditu gaztetzeko, agian beste baso batzuk, suntsitzen eta hostotzen, orain larre haizetsuak diren lekuetan, poesiarako ere ematen du denborak hemen, zer ote zagon hainbeste bizi eta kontatzeko izan baina isiltzea erabaki duenaren gogoan, e Felisa? Beste garai bat akaso, eguraldi ona eta txarra, jai eta lanegunaren artean bereizten ez zen beste garai bat, etxeetan gertatutakoa etxean geratu behar zenekoa, suposatzen dut.

Hau komeria, heu isilik eta neu berriz, mingaina moztu ezkerre ere, hitzak aterako lituzken zintzur honetatik, eta lepoa moztu ezkerre azazkalek hitz egingo liketen. Isilik egoteak baino, noiz eta zer isildu asmatzeak ematen ditin buruko minak.

Hau guztia ere bazagon, Felisa, baina zer kontatuko dinat nik hiri, dagoeneko ikusi ez dunanik. Atera ditun eltxoak agurtzera iluntzearekin, goazeman etxera, bihar Bixenteren hiletara joango naun eta etzi etorriko, ataritan egosten ditun eta babak.

EZPAK (19:38)

DATORRENAREN iragarleak gara, sastatu eta gero hil egiten gara.

Udara dakargu hegaletan, ezustea, betiereko oporretan zabiltzaten horiei. Zizta-zizta-zizta!

Ez, ez, ez... ez gara jatorrak. Ezpala. Eztena. Ezpata. Lasai egoten gara eguzki galdatan, zain putzuetako ur geldietan, olaturik gabeko isiltasunean. Ordena ilusio aspergarria eta emankorra da.

Euli mando halakoa!, diozue agertzen garenean. Umore gordina pizten dizuegu, pisutsuak gara, arranoetatik urrun dago gure hegaldia, gure irudia ez dago armarrietan. Kakaren bueltan gabiltzalako. Tximeletak lagun ziri-zaraka, edertasunez inguratzen garen munstroak gara, zalantzarekin zulatzen dizuegu azala, konexio neuronalak ahalbidetzen dituen elektrizitatea kolpea, galdera eragileak gara.

(Jarri hemen zure galdera)

Ahoan daukagu eztena. Izadia ez da kasualitate hutsa. Ezetza dakargu, baietza dakargu.

Ezbaiaren aire berria gara euli mando itxuran. Fla-fla-fla!, inguruan gabiltza.

Ttur-ttur-ttur ari zarete pasiadan. Eta gu sasta-sasta-sasta!

Datorrena iragartzen dugu eta gero hil egiten gara. Jaio. Zast! Pot. Hurrengo udara arte.

BISITARIAK (21:18)

POZAK TXORATZEN NAGO eta ez dut ezkutatuko. Bidaia honekin zeharo asmatu dugu. Bejondeigula, bejondeiala, hobeto esanda. Esaten ez dut ba nik, ez dela zertan urrutira joan, ez dagoela Galiziaraino edota Pirinioetaraino joan beharrik paraje ederretan galtzeko. Etxean bertan, hemen bertan ditugula altxorrik handienak, larre hauek, sargoria, berdea, nafarra sentitzen hasia naiz neu ere.

Txoratuta gaude eta ez gabiltza ezkutatzeko ari. Lau egun daramazkigu eta oraindik errieta txikirik ez dugu egin. Furgoneta txikia izan arren, mendian galdu arren iluntzean ezpak sastaka, ez dugu inoiz errietarik egin, ez handirik ez txikirik, ez dakit nondik datorkidan beldur hau. Erromantze onargarrikerik balego, gurearen antzeko zerbaite izan beharko luke, on egiten diogu elkarri.

Egun borobila izan da gaurkoa, beste egun borobil bat gehiago uda honetako agendan. Eguzkia sartzean da bere kolore guztiekin eta gainera festak dira, ze kasualitate polita, goizaldean hilda agertu den mutilzahararen hileta bihar egingo dutela festei ez eragiteko, ze zortea gurea, nola dagoen zerua, begiraleku honetan begiek eztanda egiten dute, begira euri lainoak, begira, begira putreak zerbaite inguratzen haunzkaldean! Eta muxu ematen diogu elkarri. Herri hau ez da postaletan kabitzen. Eta muxu ematen diogu elkarri, muxu-muxu, eta lizunkeria zeharkatzen hasten gara, aldaken arteko imana pizten da eta zure mingaina listutan itsasoratzen hazi ezpainak miazkatuz. Ume bat seko gelditu zaigu mamua ikusten duenaren antzera, esku artean pintxo morunoa, pentsamendu artean auskalo zer.

Emakume bat gugana dator, zuzen-zuzenean, helmuga, diana sentitu naiz, herri honetan ez daude ohituta gu bezalakotara. Gelditu da, jarri dio eskua sorbaldan, laztandu belarri atzea, zaintzen dutenek bakarrik egiten dakiten moduan. Benga, Ibon, segi plazara, jokuk dauzte ta, esan dio, barkatu, umeak guri, sorbaldak altxata ttak txiki bat egin du, pausa, eta badoa.

—Ze, festara edo? Nondik zatozte ba?

Kotxeak jotako basurdearen aurpegia jarri diozu tipari.

—Amama hemengoa zen, Behekolarrekoa.

—A bai? Kontatu izan didate bertakoek etxe hori lurpean geratu zela... ze pena! Hemen dauden etxe pilarekin, jesous, gazte askorentzako lekua dago hemen.

Harritzarrak begiratzen ditu tristuraz, pentsamendua irakurri dizu, pentsatu dut.

—... total, hemen ia denak gara kanpokoak!

Ibon gerturatu da, pintxo morunoa bukatuta.

—Bera bai, bera hemen jaio da, e, Ibon? Hemengoa zara zu. Ez da leku txarra, e, ohitu egiten da txarreanean ere, baina gero begira ze paraje, gainera gaztea izanda energia daukazue horrelako leku baterako...

Zu ez zara gazte-gazte eta bera ere ez da heldu-heldua ere. Urte gutxiren bueltan zabiltzate, pentsatu dut, eta ze diferentzia eta ze diferentzia gutxi. Daukazue hitza esan du, gonbidapen ofizial bat ote? Bi bollera gipuzkoar lur hauetan, haurtxo txikia eskola txikira eramaten, ederra fantasia, ezingo nioke barkatu nire buruari atrebentzia halakorik, hirugarren bat gure arteko konfiantza honetan sartzen. Baina daukazue esan du, ez dut nik esan, e, berak esan du. Hemen jendeak imajinatu dezake horrelakorik, hemen jendeak imajinatu gaitzake “gu”, baina “haiek” bezala. Irudikapenen oihartzunak aztoratzen dizkit bularrak. Lotsarazi nau hogeita batgarren mendean dudan konfiantzarik ezak eta jendea baino puska bat inteligenteagoa sinesteko dudan joera honek.

Aizu, baina zein politikak labandak loratzen, behorrak moxaletan biderkatzen eta poniak puzten, liztorrak tenpluak eraikitzen. Esan izan didazu, badakit, jendea estresatuta bizi da hemen, kotxearen dependentzia, zerbitzu falta, lana erruz, eta horrelakoak, baina aiku.

Harro begiratu zaitut, zure forma borobilek zentzua hartuko balute bezala. Beti pentsatu izan dut, neska hau, ai, neska hau lurretik dator, aldaka zabalak ditu, jentilen izterrak edo izan behar dute, urtaroen eragina ospatzen duten pertsona gutxi geratzen dira eta zeu bat zara. Ongi geratzen zaizu atzeko mendi tontorra, hain afortunatua sentitzen naiz zu miresteaz, ikusteaz, paisaia honekin bodegoi batean sartuko zintuzket, marraztu eta etxeko sukaldean jarriko zintuzket. Argazki bat aterako dizut, putreak atzean, geldi hortxe, ederki, klask!

MUTILZAHARRA (22:28)

MIN DAUKEN LEKURE eraman behar da eskue, ama defuntuak zioen bezala, eta izter atzeko haragi bigunetan hatz mamiak sartu dizkiot eta ttak egin du gora Joxek. Benga, motel, helduko haiz, hiru koska, lau metro egur zartatu eta ohatzera, hala ba! Ufa, zintz eta ufa, puf eta ai. Dena purrusta, dena aiene, dena animalia abandonatuaren orroa eta marmarra arreta eske. Horrelaxe gabiltza. Ama joan zitzaigunetik —badira mordoxka bat urte bereak egin zuela— nekea da etxe santu honetako bizilagun egonkorrena. Uda honetan lainopeko beroa gehitu zaio. Lainopeko bero hau, zerua gris, zaparradak labur, lur azpia lehor eta azala berde. Ezin nuen berde kolore berbera aguantatu.

Herioaren ondorengoa argi zuri bat edo etengabeko hegaldi bat izango zelakoan nengoen ni, eta hara, ortzadarra gurutzatuta ere, bizirik bezain lanpetuta nabil nire lehenengo hildakoaren egun honetan, gora San Fermin!

Goizean:

~~leihoak zabaldu,~~
~~bonbatik tira,~~
~~etxeke zapatillak ohe azpitik atera~~
eta farmazian erosi zenituen ~~antiojo kaskarrak~~ sukaldeko mahai gainean bistan-bistan utzi.

Eguerdi partera:

~~leihoak itxi,~~
han-hemen ~~papurak jaso,~~
lurreko baldosa zartatu loredunen ~~ertzak leundu,~~
egurretan agertutako ~~zuloen gainean kartoia jarri estropezu ez egiteko,~~
behatz txikirik ere ez kateatzeko.

Ilundu eta gero aurreikusten ditudanak:

atakak itxi behorra ez dadin ihesieskapa,
eskailerak igotzen lagundu,
mesanotxeko kandlei putz egin,

*todoterrenoaren argiak itzalita daudela konprobatu,
itoginei baldea jarri.*

Garrantzitsua da etxeetan gauzek bere lekua izatea. Gustua ematen du horrela, etxeak bera bakarrik ordenatuko balitz bezala jarraitzen du, neu mamua izanda ere. Ikusezina izatea urte luzetako eskarmentuarekin lortutako abildadea da, ez pentsa berezkoa zaidanik. Txikitan armairuetan ezkutatu eta sustoak ematera jolastetik datorkidala uste dut. Zenbat oroitzapen ezkutupeko, alkobako armairuan aitaren galtzontzillo luzeak eta amaren mezatarako zapatak jantzita. Eskailerapekoan, eskopeta eta urrezko kateak kamuflatuta eta dirdirka. Harraskapekoan, amari hainbeste amorrarazten zion han sartzea, harraskapean, han amak gordetzen zituen detergente poteak, sifoia eta atzean ardo botila. Arratoientzako benenoa jarriko diat hor eta hil egingo haiz!, errieta egiten zidan amak, beti amenazuka. Zaplatekoak ematen zizkiguten eskolan eta katekesian, baina amak zaplatekorik ez zidan ematen, beti errietan geratzen zen. Bost anaietan txikiena nintzen ni, beste mutil bat demonio, madarikatzen zuen, eta zaharraren izena jarri zidan, Joxe Miel, hura frankistekin frentean hil zenean año milnovecientoscuarentaicinco-n, eta horregatik amak zaplatekorik ez zidan ematen, hildakoa jotzea bezalakoa izango zelako edo. Karmen, horrela, bigundu besterik ez dun egingo, gure aitak amari, gona gorririk batere baina lezioak eskolarako inteligentea izango dun, bai, horrela kontsentituta baina, lanerako, ai lanerako, ahuntzak baino potro eskasagoak izango ditin.

Ba, zeozer bai, antza, ze zakil honek ez du astindurik ez alegriarik hartu, orain mamua izanda nahi dudana esan dezaket eta dena kontaktuko dizuet. Argigorritara eraman ninduten 13 urteren bueltan, kolegioa bukatuta neukan dagoeneko, emakume heldua, handia, elegantea, amaren antza hartu nion arropagatik ez balitz, esku batean sartzen zitzaizkion nire bi koskabiloak. Eta ea. Bapo. Orduz geroztik, ez neure ez besterenik ez dut dantzarazi. Hurbil izan ditudan arren frankotan. Mutilek egurtu eta askan amaitu nuen hartan adibidez, han bai, Julianek aurpegian jarri zidan, batek gerria, beste norbaitek, ez dakit nork, ipurgainaren kontra, baina beti arroparen gainetik. Eskuekin jo beharrean makilakada ederrak jaso nituen, eta gero behien askako ur berdea, eta beste batean albergakoa, eta beste batean errekakoa... eta beti herriko emakumeren bat purrustaka, ni zulotik ateratzen, gizajoa, gizajoa, horrelakorik ez du merezi Karmenen semeak, den bezalakoa izanda ere. Orain mamua naizela dagoeneko esan dezaket, ukitu ez ditut

ukitu, begiekin ikusi ere ez, imajinatu bai ordea, imajinatu ditut mota guztietako zakilak, albora eroriak, luzangak, urdinkarak, zainik gabekoak, zuzentzen ari direnak, flanaren antzekoak, haragia dutenak, irudikatu ditut denak zergatik oso argi ez dudan arren.

Ez dakit eskopetarekin egin izan banu, mafiosoen pelikuletan egiten duten bezala, edo balkoitik bota banintz, morroiarekin ezkondu zen Errotaundiko neska zaharrak egin zuen moduan, hobeto izango litzatekeen. Baina behin heriotza alboan izanda metodo hau praktikoagoa iruditu zait, egiteari uztea eta listo, kantzerra, prostatakoa kasu honetan, etxe guztietako kontua da. Lehen Kontxi etortzen zen, baina pazientzia galdu zuen Joxe Mariren esku berde arinekin, eta dagoeneko ez nuen inor galdetzeko, Miel, kimioaren pastilla hartu al duk? Ezkutaketetarako abila hiltzerakoan ere, baina lasai, errutinari eutsiozue, dena ondo joango da, Txomin, Joxe, behorrei jaten eman eta jaitsi surtidorera menua jatera, bakarrik bada ere behinik behin jendez inguratuta egongo zarete, bijilatuta, Joxe, hik esaten duan bezala. Nik zainduko zaituztet bizirik nengoenean bezala, eskertu beharrik ere ez duzue izango. Garrantzitsua da etxeetan bakoitzak bere lekua izaten jarraitzea.

ISILTASUNA (00:18)

GOAZEN asmakizunetara jolastera:

existentzia duen ezinezko fisiko bat,
aukera guztien aurretiazko baldintza
martirio guztietako perrexila
ausentziarekin oihu egiten du
presentziarekin hustu
zer da, zein da?

NI!

Modan nagoela dirudi! Landetxeen lurralde bihurtzen ari da bailara, obra zaratatsuak eta solteren despedidak daude non nahi. Jutezko alfonbrak eta altzari nordikoak, yogako erretiroak, udatiar hiritarrak, artistak... nire omenez! Fetitxe bihurtzen ari naiz! Diote, isiltasuna behar dugu, zarata gehiegi dago! Diote, isiltasunarekin apurtu behar dugu! Ama batek bere alabari esango dio belaunaldi bakoitzean, egon hadi isilik, neska, ez dakin nor daukanan alboan eta!

Nor izango da ba? Ni neu! Nire burua entzutera ere iritsiko naiz horrela jarraituz gero... ixo!
Gauerdia da, sehaskatu gaitezen, kanta dezagun batera:

Ixilka-mixilka
sudurrak zapatetara
kontzientziak iheska
xirrist!
anis eta txikito, trailarailarai
erruak bustita-bustita
lotsak dantzatzen
Surtidorean, trailaralarai
enteratu haiz Bixenterena?
Ixilka-mixilka
Harrak zuloa egingo dizu tripan
Egin lo

Gaua lasaia izango da, autobia eta haize errotak entzuten jarraituko dituzue urrunean, bakardadeak oihartzun egiten jarraituko du etxeetan, gau-hontzak zelatari. Ixxx... lo daude behorak eta untxiak eta itxuraz, barneko harrak, ixxx...

KONTXI (05:08)

LOEZINAK JOTA ostotsen erritmoarekin koordinatzen ari naiz lo hartzeko saiakera guztiak, irakurketa lehenik, esnea madalenarekin eta masturbazio efizienteak eragindako hiru orgasmo eta ez da nahikoa izan sosegatzeko. Ekaitza lehertzen ari da, bibliko samarra dirudi goizalde honek, euriak freskuraz betetako ur-jalaz garbitu atmosferako tentsioa, zabaldu ditut leihoak eta arnasak, urruntzen hasi dira lainoak. Bazen ordua. Uda beteko euri zaparraden barealdia eta lilura zer den, urtaro bakoitzak dakarrena nabarmenagoa da, hemen argi dago, eta gustatzen zait itzulera sentazio hau, eguraldi on eta txarrik ez dagoela ulertzeko patxada hau. Dagoena dago, Kontxi, ohartu gabe dator zahartzaroa, egun batean beroa eldarnio bihurtzen da eta danba, gaueko orduak bizitza berrikusten pasatzen zara: badakit, neuk erabaki nuen jubilatutik ondoren itzultzea, agur esatea Baionan bizitzeko aukerari, Beatrizekin etxepeko Carrefour txikian, dendariaren au revoir, couple!, entzun eta murtxikatu eta biren izenean agurtzeari, eta ondo dago, Kontxi, agur esatea. Atturriko paseoak Errekaundi alboko bidegorrian ez direla izango, biren izenean ez duzu agurtuko zulo honetan Kontxi, eta ondo. Erabaki duzula zahartzea, eguneroko huskeria arruntekin erreboltak hezurmamitzen zahartzea, zergatik ez, mendiak sortu eta paisaiak aldatzen diren erritmo berberarekin aldatzea, egunero bizilagunen leihoak irekita daudela frogatzen eta atarietara ateratzen, noski baietz, urtaroen arabera berde mota guztien artean bereizten.

Amantala janzten dudanean erreinua balitz bezala begiratzen diot bailarari sukaldeko leihotik. Adarra nabarmendu dezaket ilargirik gabeko ilunpean, fantasiazko izaki baten bizkarrezurra dirudite haitzek, mitologikoak berez. Euriak eusten badio, goizaldean ostadarra aterako da, eta lainopean harrapatutako gogo guztiek gurutzatu ahal izango dute zuloaren bestaldera, eta lur azpian sartuko dira, gainean gabiltzanok non zapaldu izan dezagun hatsa dugun bitartean.

ADARBAKARRA (06:39)

ARIMA ERRATU GUZTIEK osatuko dute biharko kontzejua
gorputzak komunalak izango dira
nabarmenkerian sinistuko duzue
eta diot:
Adarbakarrak existitzen gara

har ezazue eta jan guztiok honetatik
ni naiz lur nabarra
ama-luma
larreak bizkar
tontorrak konkorrak
errepideak zain eta
errekastoak izerdi jario
buztana aingeru
hutsunea bihotz
zuloa altzo
basoak soineko
jendeak parasito

prriiiiiiii-iiiiii! (artzainaren deia)
Toz-toz-toz-toz

artaldean egiten dut lo
tontorrean
etxeko zapatilak jantzi eta goi larreetatik jaitsiko naiz
jar itzazue gerri bueltak
ni erdian belaunikatzeko,
zauriak miazkatuko dizkizuet
bihurtu nazazue mito
atera desertu berde honen ahanzturatik
je suis Mari
denok gara pixka bat Mari
jarrizkidazue kateak, nik jarriko dut alaitasuna
Botadazue errukia,
emadazue errua,

beti atzealdetik,
irekidazue gasoduktoa gibelean
autobia homoplatoan
abiadura guztien tren tunelak belaunetan
urbanizazio zuriak behatz tarteetan
hutsunez sortua nago
zuloak leizeak hobiak gordelekuak
gure dekadentziaren onenean gaude²
In exelcis

dena doa lurpera, urak bezala,
kantu karstikoa,
historia zulatua
kalte berdea naiz
esnatze basa,
ardi larruz estalitako adarbakarra
begira, begira nola nabilen
noan hegan
banoa hegan
ostadarra gurutzatzera

2 Berri Txarrak taldearen *Gure dekadentziaren onenean* ("Payola", 2009) abestitik hartutako esaldia.